

# ADIERAZLEAK

## IKASLE-IRAKASLE ARTEKO HARREMAN AFEKTIBOAK

Aztertu nolako harremana sortzen den ikasleen parte-hartzea sustatzeko

- Saioko dinamika
- Partaidetza
- Hartu-eman

- Bakarkako / taldeko lana
- Edukiaren ezagutza eta garapena
- Talde-giroa

### ALDEZ AURRETIK PRESTATU

#### Ikasleen partaidetza sustatzeko zer egin dezakegu?

- **Ikasleengana gerturatu** eta jarraipena egin. Konfiantzarekin hitz egin dezaten bilatu.
- Hitz egiteko tonua eta **bolumena egokitu** egoerara.
- **Gorputz mugimenduak egokitu** egoerara.
- **Feedback positiboa** eman eta eskertu parte hartzen denean.
- Ikasleen parte-hartze batzuetan: **errepikatu esan dena, birformulatu, laburtu eta osatu esan dena...**
- Ikasleen **ahalegina baloratu** (beti "oso ondo" esan gabe; neurriko balorazioak egin).
- Ikasleari **pentsarazteko eta arrazoitzeko bideak** eskaini.
- **Umorea** erabili.
- **Utzi** ikasleari **denbora** hitz egiteko. **Kudeatu isiltasunak**.
- **Neurtu nori eskatu nahi zaion parte har dezan**, nori entzun dezan (beti, betikoak ez).
- **Neurtu norentzat** izan daitekeen erronka parte hartzea (bakarrik edo taldean) eta norentzat "amesgaiztoa" (bakarrik edo taldean). Horren arabera ere egin eskakizuna eta egokitu eginkizuna ikaslearen arabera.
- Negoziatzeko, arazoak konpontzeko **estrategiak landu** eta adostu ikasleekin.

#### HORTAZ, AUKERATU

- Zein den **momentu egokiena** ikasleengana gerturatzeko.
- Ikasleen **parte-hartzea nola ekarriko** duen irakasleak bere hitzera: errepikatuz, birformulatuz, ideiak laburtu eta osatuz, balorazio positiboa eginez...
- **Nola emango** den **feedbacka**.
- Hitz egiteko aukeraren aurretik, **pentsatzeko eta prestatzeko zein aukera** emango diren: denbora eman lehenik banaka/binaka/taldean prestatzeko eta gero jendaurrean adierazteko; esan beharrekoa idatziz jasota izateko aukera eman (eskema, esaldiak...)
- **Nori eskatuko zaion** talde txikietan hitz egin dezan, eta nori jendaurrean bakarka.
- **Nola eskertuko** den partaidetza.
- **Nola eta noiz utziko den denbora** ikasleek hitz egiteko. Irakaslearen isiltasunak noiz izango diren.
- ...